

Merkatuaren segmentazioa

- **Zein da zure bezeroa?**

Gure bezeroak **hirugarren adinekoak** izango dira. Zehazki 65 urtetik gorakoak. Hasiera batean Urnieta herriko biztanleak espero ditugu eta denborarekin zabaltzen joateko asmoa dugu. Gure enpresa ezaguna egitean Andoain, Hernani, Lasarte... herrietako pertsona helduak gure instalazioetara bertaratzea espero dugu.

- **Zein dira bezero horien ezaugarriak?**

Lehenago esan bezala adin gutxieneko bat ezarriko dugu, 65 urtekoa. Bezeroak etxean **zer eginik ez** dutenak edo **pertsonak ezagutu** eta haiekin **denbora pasatzea** gustuko dutenak izan daitezke. Beste aldetik **sozialki** hainbat **motatako** bezeroak espero ditugu. Adibidez: Sozialki inor ez dutenak: hauek pertsona berriak ezagutzeko eta haiekin une atsegin bat pasatzeko helburuarekin bertaratuko lirateke.